

DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

GARDENTASUNARI, GOBERNU IREKIARI ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEARI
BURUZKO ARAUDI ORGANIKOA

Hasierako onarpena: 2017ko uztailaren 18ko ohiko osoko bilkuran.

BAOn argitalpena: 2017ko abuztuaren 1ean, 145zk.

http://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2017/08/01/II-3624_eus.pdf


Informazio publikoko epe amaiera : 2017ko irailaren 13a.

Alegazioak: BAT ERE EZ.

184zk BAOn argitalpen osoa: 2017ko irailaren 26an.

http://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2017/09/26/II-4344_eus.pdf?

2017ko irailaren 27tik aurrera indarraldi mugatua (Xedapen Gehigarriak).



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

ATARIKO TITULUA

1. artikulua.- Xedea.

Araudi honen helburua da herritarrek udal jardueraren gardentasuna ezartzeko, informazio publikoa eskuratzeko eta udal kudeaketan parte hartzeko duten eskubidearen banakako edo taldeko erabilera arautzea, eskubide horiek eraginkorrak izateko parte-hartze eta informaziorako prozedura, bitartekoak eta moduak ezarrita, horiek guztiak udal gobernu irekiaren oinarriak diren aldetik.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua.

1. Araudi hau udal administrazioan eta bere erakunde autonomoetan aplikatuko da.
2. Arautuko diren eskubideak Durangoko herritar guztientzat eta egoitza Durangon duten herritarren erakundeentzat izango dira.
3. Arau hauen ondorioetarako, herritartzat joko da Biztanleen Udal Erroldan inskribatutako edozein pertsona.
4. Arau hauen ondorioetarako, herritarren erakundetzat joko dira Elkarteen Udal Erregistroan inskribatutakoak.

3. artikulua.- Printzipio nagusiak.


1. Durangoko Udalak bere jarduketa doituko du aplikatu beharreko arauetan ezarritako printzipio guztietara eta, gainera, araudi honek gobernu irekia eraginkortasunez ezartzeko funtsezkotzat jotzen dituen printzipioetara, hala nola:

a) Gardentasunaren printzipioa: Udalak aurrera egin behar du kudeatzen dituen jarduera guztietan eta antolaketan bertan gardentasuna areagotzeko. Horrela, herritarrek Udalaren erabakiak, horiek hartzeko modua, zerbitzuak antolatzeko modua eta jardueren arduradunak ezagutu ahal izango dituzte, eta izaera pertsonaleko datu pertsonalak babesteari buruzko legedian ezarritako mugak baino ez dira egongo.

b) Publizitate aktiboaren printzipioa: administrazioak esku artean duen informazioa eta bere jarduketari buruzkoa antolatu, eman eta etengabe hedatu beharko ditu, modu egiazkoan eta objektiboan.

c) Herritarren parte-hartze eta lankidetzaren printzipioa: politikak diseinatzerakoan eta zerbitzuak kudeatzerakoan, Udalak sustatu behar du herritarrek banaka zein taldeka gai publikoetan parte hartzea, laguntzea eta horietan esku hartzea. Parte-hartze horrek gizon eta emakumeen arteko % 60/% 40ko gutxieneko proportzioa bermatu beharko du eta 2020arajia 50/50era iritsi beharko du

Tratu berdintasunaren eta bereizketarik ezaren printzipioa: Udalak tratu-berdintasuna eta sexu-arrazoiak, etnia-jatorria edo jatorri nazionala, generoa, adina,



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

ezintasuna, baldintza soziala edo osasuna, erlijioa, iritzia... direla eta bereizketarik eza bermatu behar du parte-hartze arloan eta informaziorako sarbidean.

d) Kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren printzipioa: Udalak ematen dituen zerbitzuak ebaluatu, haien hutsuneak antzeman eta horiek zuzentzea ahalbidetzen duten prozesuak ezarri beharko ditu, herritarrei kalitatezko zerbitzu publikoak eskaini ahal izateko.

e) Sinpletasun eta ulergarritasun printzipioa: Udalak izapideak pixkanaka-pixkanaka gutxitzea lortzearen alde lan egin behar du, eta, horretarako, hizkuntza ulergarria erabiltzea eta administrazio kargak desagertzea sustatzen duten prozesuak eta teknikak abiarazi beharko ditu.

f) Arau-kalitatearen printzipioa: ekimen arautzailea egikaritzekoan, Udalak zenbait printzipiori jarraituko die, hala nola: proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, eskuragarritasuna, sinpletasuna eta eraginkortasuna.

g) Modernizazio printzipioa: Udalak teknika informatiko eta telematikoen erabilera sustatu behar du, bere jarduera garatzeko eta erakundean bertan ezagutzaren kudeaketa ezartzeko eta hobetzeko.

h) Eskuragarritasunaren printzipioa: Udalak zainduko du bulegoetan, politiken diseinuan zein jarduketa guztietan eskuragarritasun unibertsalaren printzipioa bermatzen dela.

2. Udalbatzak bere burua antolatzeko duen ahalmena erabilia ezarriko dituen partaidetzarako modu, bitarteko eta prozedurek inolaz ere ezin izango dituzte murriztu udal organo eskumendunei dagozkien erabakiak hartzeko ahalmenak, indarrean dagoen Araudiak ezarritakoak. Edonola ere, Udal baitako eta kanpoko prozesu parte-hartzaileek 60/40ko gutxieneko proportzioa bermatu beharko dute gizon eta emakumeen artean eta 2020rako 50/50ekoa izatea lortu nahi da

4. artikulua.- Herritarren eskubideen zerrenda:


1. Durangoko herritar guztiek eskubidea daukate udal kudeaketan zuzenean parte hartzeko, banaka edo taldeka, elkarteen eta herritarren bestelako erakundeen bidez. Beste behin ere, gizon eta emakumeen artean 60/40ko gutxieneko proportzioa bermatzen ahaleginduko dira eta 2020rako 50/50ekoa izaten ahaleginduko dira

2. Durangoko herritarrek eta herritarren erakundeek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legeria orokorrean aitortutakoez gainera, honako eskubide hauek ere izango dituzte, Araudi honetan ezarritakoaren arabera:

a) Administrazio jardueran gardentasuna eta informazioa egon dadila.

b) Entzunaldi publikoa izateko eskubidea.

c) Eskatzeko eskubidea.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- d) Herri-ekimena gauzatzeko eskubidea.
- e) Osoko bilkuraren bileretara aktiboki joan eta bertan mozioak, galderak eta eskaerak aurkezteko eskubidea.
- f) Udal baliabideak eskuratzeko eskubidea.
- g) Herri galdeketarako eskubidea.
- h) Udal eskumeneko zerbitzu publikoak eskuratzeko eskubidea.
- i) Informazio batzordeen bileretara joateko eskubidea, indarreko legedian eta araudi honetan ezarritakoaren arabera.

GARDENTASUNA, INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEA ETA GOBERNU ONA

I. KAPITULUA

PRINTZIPIO OROKORRAK.

5. artikulua. Gardentasunarekiko konpromisoa.

1. Durangoko Udalak bere jarduketan gardentasuna bermatuko du, baita informazio publikoa askatasunez eskuratzeko eta hori berrerabiltzeko eskubidea ere, horretarako beharrezko baliabideak (ahal dela, elektronikoak) ezarrita.

2. Aurreko hori konpromiso hirukoitz baten bidez bermatuko da:

- a. Informazio publikoa eskuratzea eta hori berrerabiltzea.
- b. Publizitate aktiboa, eta
- c. Gobernu ona.


6. artikulua.- Eremu subjektiboa.

Titulu honen ondorioetarako, Durangoko Udalaren barnean daude erakunde autonomoak eta udal titulartasunpeko sozietateak.

7. artikulua.- Jarduketa printzipioen zerrenda:

a) Informazioaren publizitatea: udal administrazioan dagoen informazioa publikoa da. Berau eskuratzeko uka daiteke legeek eta Ordenantza honek beren-beregi ezarritako kasuetan bakarrik eta, betiere, ebazpen arrazoitu bidez; edozelan ere, ebazpen hori bide administratiboan zein judizialean aurkaratu ahal izango da.

b) Publizitate aktiboa: Udalak bere ekimenez argitaratuko du gardentasuna bultzatu, jarduketaren kontrola ahalbidetu eta pertsonen eskubide politikoaren erabilera errazten duen informazioa, baita gizarterako eta ekonomiarako erabilgarriena izan daitekeena eta, gutxienez, titulu honetan ezarritakoa ere.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Nolanahi ere, gutxieneko maila horretatik aurrera, arloan espezializatuta dauden elkarte independente eta entzutetsuek eta, bereziki, Transparencia Internacionalek gomendatutako adierazle guztiak argitaratzen saiatuko da.

c) Berrerabiltze askea: hori eragozten duen bidezko arrazoia egon ezean, Udalak argitaratutako edo eskura jarritako edozein informazio berriro erabili ahalko da, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legean eta Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.

d) Berehala eta baliabide elektronikoen bidez eskuratzea: Udalak beharrezko baliabideak ezarriko ditu, pixkanaka-pixkanaka informazio publikoa baliabide elektronikoen bidez eskuratu ahal izateko, aurretik eskabiderik egiteko beharrik gabe, eta berehala. Halaber, ahal dela, Udala informazioa formatu elektronikoa argitaratu eta eskura jartzen saiatuko da, herritarrek Udal Administrazioarekin komunikatzeko bidea hautatzeko duten eskubidearen kalterik gabe.

f) Diseinuaren pribatutasuna: Udaleko informazio sistemen diseinua, garapena eta kudeaketa datuak babesteko legedian zein Ordenantza honetan ezarritako eskuratze-mugak behar bezala aplikatu direla bermatuta egingo dira. Informazioa modu automatizatuan eta baliabide elektronikoen bidez eskuratzea ahalbidetzeko asmoz, datuetan eta dokumentuetan muga horien aplikagarritasunari buruzko informazio zehatza gehituko da.

f) Informazioaren kalitatea: herritarrei ematen zaien informazioak egiazkoa, frogagarria eta eguneratua izan beharko du. Argitaratu eta eskura jartzeko prozesu guztietan informazioaren atal arduraduna eta azken eguneratze-data adieraziko dira. Halaber, baliabideek horretarako aukera ematen duten guztietan, argitaratzeko ardura dutenek argitaratu beharreko informazioa egokituko dute, herritar guztiek erabat ulertzeko moduko egitura, aurkezpena eta testua bermatuta.


h) Zerbitzatzeko konpromisoa: informazio publikoaren hornitzeak uneoro eraginkorra, azkarra eta kalitatezkoa izan beharko du. Horren harira, udal langileek herritarrei lagundu beharko diete, hala eskatzen dietenean, eta Udalaren eta informazioaren erabiltzaileen arteko berriazko komunikazio bideari eutsi beharko diote.

8. artikulua. Erantzukizunetik salbustea.

Udala salbuetsita egongo da, beti, argitaratutako edo hirugarrenen eskura jarritako informazioaz edozein pertsonak edo erakundek egiten duen erabileraren gaineko erantzukizunetik.

II. KAPITULUA. INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA.

9. artikulua.- Eduki orokorra.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Herritar guztiek dute informazioa jasotzeko eskubidea, arrazoitutako eskabidea egin ondoren, bai eta udal jardueraren eta udal programa eta zerbitzuen berri izateko eskubidea eta udal agiritegiak kontsultatzekoa ere. Horretarako muga bakarrak izango dira Konstituzioak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legeria orokorrak eta datu pertsonalak babesteari buruzko legeriak ezarritakoak.

10. artikulua.- Informazio publikoa.

1. Durangoko Udalaren informazio publikoa izango da Udalak esku artean duena, baita eginkizunak gauzatzean prestatu edo eskuratu dena ere. Informazio horrek paperezko euskarria izango du, edo formatu elektronikoan egongo da; bigarren kasu horretan, datu edo dokumentu elektroniko itxura izango du.

2. Pertsona guztiek dute Durangoko Udalaren informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

3. Eskuratzeko eskubidea banaka gauzatzeko, izapideak bideratu eta espedientea ebatzi beharko da, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean edo hori ordezten duen arauan ezarritakoaren arabera.


4. Eskuratzeko eskubidearen mugak, oro har, aplikatu beharreko araudi horretan ezarritakoak baino ez dira izango.

11. artikulua.- Datu pertsonalen babesa.

1. Eskatutako informazioak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko Lege Organikoaren 15/1999. artikulua 7. atalak aipatutako babes bereziko datuak baditu, bakarrik baimenduko da horiek eskuratzeko ukitutako pertsonaren berriazko eta idatzizko baimena badago, eskuratzeko eskatu aurretik pertsona horrek datu horiek jendaurrean jarri ezean.

2. Informazioak 15/1999 Lege Organikoaren 7. artikulua 3. atalak aipatutako babes bereziko datuak edo arau-hauslearentzako ohartarazpen publikorik ez dakarten zigor edo administrazio arloko arau-hausteak egiteari buruzko datuak baditu, bakarrik baimenduko da horiek eskuratzeko ukitutako pertsonaren berriazko baimena badago edo lege mailako arau batek eskuratzeko hori babesten badu.

3. Oro har, eta dagokion kasu zehatzean datu pertsonalen babesa edo Konstituzio bidez babestutako interes publikoari buruzko beste eskubide batzuk gailendu ezean (horiek argitaratzea galaraziko lukete eta), organoaren antolaketari, funtzionamenduari edo jarduerari publikoari lotutako identifikazio datuak bakarrik dituen informazioa eskuratzeko baimenduko da.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

4. Eskatutako informazioak babes bereziko daturik ez badu, eskabidea jasotzen duen organoak informazioa eskuratzea baimenduko du, informazioa hedatzeko dagoen interes publikoa eta eskatutako informazioak agertzen dituen datuen jabeen eskubideak -bereziki, datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea-behar bezala aztertu eta gero. Azterketa hori egiteko, organo horrek honako irizpide hauek hausnartuko ditu bereziki:

a) Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 57. artikuluan ezarritako epeak igaro izanak ekarritako ondorioak ukitzen dienei ahalik eta kalte txikiena eragitea.

b) Eskatzaileek beren eskabidea justifikatzea: eskubide bat egikaritzen ari direla, edo ikertzaileak izan eta informazioa xede historiko, zientifiko edo estatistikoekin eskuratu nahi dutela adieraztea.

c) Ukituen eskubideei ahalik eta kalte txikiena eragitea, dokumentuek horien identifikazio datuak bakarrik baldin badituzte.

d) Ukituen eskubideei ahalik eta berme handiena ematea, dokumentuko datuek haien intimitateari edo segurtasunari eragin badiezaioke eta adingabeei buruzkoak badira.

5. Ezin izango da aplikatu aurreko idatz-zatietan ezarritakoa, eskuratzea datu pertsonalak bereizi ondoren egiten bada. Horrela, ukitutako pertsonen identifikazioa eragotziko da, legedi orokorrean ezarritakoaren arabera.

6. Datu pertsonalak babesteko araudia eskuratze-eskubidea egikarituta bereganatutako datuen ondoko tratamenduari ere aplikatuko zaio.

III. kapitulua.

INFORMAZIOA BERRERABILTZEA


12. artikulua.- Baldintza orokorrak.

1. Udalak argitaratutako edo eskura jarritako informazio guztia berrerabili ahalko da, aurretiazko baimenaren beharrik gabe, informazio horretan berariaz kontrakoa adierazi ezean.

2. Durangoko Udalaren informazio publikoa berrerabiltzen duen edozein pertsonak edo erakundek honako baldintza orokor hauek bete beharko ditu informazio hori erabiltzerakoan:

a) Informazioaren esanahiari eustea, berezko izaera kendu edo aldatu gabe, eta haren esanahiari buruzko interpretazio okerrak saihestuta.

b) Iturria Durangoko Udala dela aipatzea, eta inolaz ere ez adieraztea Udalak berrerabiltzea dakarren proiektua edo ekintza babestu, lagundu edo oinarritzen



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

duenik, nahiz eta babes, laguntza edo lankidetzeta hori egon daitekeen, Udalaren berriazko erabaki batean oinarrituta. Kasu horretan, hala adierazi ahalko da, bertan aipatu bezala.

c) Informazioaren kalitatea bermatzen duten elementuei eustea, baldin eta berrerabilerarekin bateragarriak badira. Aipatu beharko dira, bereziki, azken eguneratze-data eta berrerabilerari aplikatu beharreko baldintzak.

3. Informazio publikoa argitaratzeak edo eskura jartzeak berekin dakar Udalak berrerabilera garatzeko behar diren jabetza intelektualeko eskubideak doan eta modu ez eksklusiboan lagatzea, izaera unibertsalarekin eta Legeak baimendutako gehienezko eperako. Udalaren informazio publikoan oinarritutako zerbitzugintzak berrerabilera agenteek xedatutako tarifak eta prezioak jasotzea ekar dezake.

13. artikulua.- Hirugarrenen eskubideak.

1. Pertsona edo erakunde batek berrerabilerak uki dezakeen eskubideren bat badu datu edo dokumentu zehatz batzuen gainean, Udalak bakarrik baimenduko du berrerabilera, eskubideen titularra aurretik adostasuna eman ondoren.

2. Udalak datu edo dokumentu horiek argitaratu edo eskura jartzen baditu, adieraziko du horiek ezin direla aurreko baimenik gabe berrerabili, horien gainean hirugarren eskubideak egoteagatik.

IV. KAPITULUA. PUBLIZITATE AKTIBOA

14. artikulua.- Gardentasuna Udalbatzaren eta Plangintzaren antolaketako informazioan.

Udalak honako adierazle edo item hauek argitaratuko ditu, ondore horretarako sortutako Gardentasunaren webgunean:

1. Gobernu-organoen osaera:

1.1. Udalbatza.

1.2. Alderdi politikoak.


1.3. Udal Gobernu Batzarra.

1.4. Informazio Batzordeak.

1.5. Erakunde Autonomoetako Zuzendaritza Kontseiluak.

1.6. Udal sozietate publikoetako administrazio kontseiluak.

1.7. Udalez gaindiko beste erakunde batzuetako (patronatuak, partzuergoak eta abar) partaidetza.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

1.8. Udalaren webgunean alderdi politikoentzat erreserbatutako ataletarako loturak.

2. Udalaren egiturari eta langileei buruzko informazioa:

2.1. Organigrama politikoa eta arloetako ordezkariak.

2.2. Udaleko lanpostuen zerrenda eta mailen araberako ordainsariak. 2.3. Konfiantzako langileen zerrenda.

2.4. Erakunde autonomoen eta sozietate publikoen oinarrizko datuak

2.5. Erakunde autonomoetako eta sozietate publikoetako lanpostuen zerrenda eta mailen araberako ordainsariak.

3. Udaleko kargu hautetsiei eta langileei buruzko informazioa:

3.1. Alkatetzako titularraren eta zinegotzien ikasketa- eta lanbide- datuak.

3.2. Alkatetzako titularraren eta zinegotzien helbide elektronikoak.

3.3. Sindikatu-hauteskunderi buruzko informazioa: liberatuak eta horien ordainsariak.

3.4. Onetsitako lan-eskaintzei buruzko eta hautaketa-prozesuetako oinarriei buruzko informazioa.

4. Udaleko kargu hautetsiei eta langileei buruzko informazioa:

4.1. Buruzagitzetako titularren eta udaleko goi mailako arduradunen ordainsariak.

4.2. Konfiantzako langileak eta haien ordainsariak.

4.3. Kargua uzteagatiko kalte-ordainak, baldin badaude.

4.4. Bateragarritasuna baimentzeari edo aintzatesteari buruzko ebazpenak.

4.5. Udaleko goi mailako ardurak dituzten pertsonen ondasunen eta jardueren erregistroa.

4.6. Osoko bilkuren, batzordeen edo bestelakoen bileretara joateagatiko dietak edo kobrantzak, eta kontzeptu horiengatik urtero jasotzen den zenbatekoa.

4.7. Talde politikoei egindako esleipenak

4.9. Eginkizuna gauzatzeko, udalkideen eta funtzionarioen esku jarritako baliabideak.


5. Plangintzari buruzko informazioa:

5.1. Gobernu-plana.

5.2. Tokiko Agenda 21.

5.3. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia.

5.4. Berdintasun Plana.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

15. artikulua.- Gardentasuna garrantzi juridikoa duen informazioan.

Gai horri dagokionez, Udalak honako adierazle edo item hauek argitaratuko ditu Gardentasunaren webgunean:

1. Osoko bilkura:

1.1. Osoko bilkuren eguneko gai-zerrendak.

1.2. Osoko bilkuren aktak.

1.3. Osoko bilkuren ebazpenak.

1.4. Osoko bilkuren grabazioak.

2. Gobernu Batzarraren bilera erabakitzaileak:

2.1. Gai-zerrenda.

2.2. Aktak.

2.3. Erabakiak.

3. Bozeramaileen Batzarrak:

3.1. Gai-zerrenda.

3.2. Aktak.

4. Informazio Batzordeak:

4.1. Gai-zerrenda

4.2. Aktak.

5. Partaidetzarako sektore-kontseiluak

5.1. Zein dauden.

5.2. Partaidetzarako kontseiluen bileretako aktak.

6. Araudiak eta ordenantzak.

6.1. Indarrean dagoen araudia.


6.2. Ordenantzen eta araudien proiektuak, jendaurrean jartzen diren unetik aurrera.

6.3. Udal araudia onesteko edo aldatzeko espedienteei buruzko memoriak eta txostenak, jendaurrean jartzen diren unetik aurrera.

6.4. Arloko legediaren arabera, jendaurrean jarri behar diren bestelako dokumentuak.

6.5. Udalak onetsitako Kode Etikoa edo Gobernu Onaren Kodea.

16. artikulua.- Gardentasuna kontratu, hitzarmen eta diru-laguntzetan.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Gai horri dagokionez, Udalak honako adierazle edo item hauek argitaratuko ditu Gardentasunaren webgunean:

1. Kontratatzeko prozedurak:

1.1. Kontratu guztiak, lizitazioan daudenak zein gauzatu direnak, Transparencia Internacionalek gomendatutako adierazleak jasota.

1.2. Gauzatutako kontratu-aldaketak.

1.3. Kontratu txikiak argitaratzea, gutxienez, hiru hilean behingo zerrendaren bidez.

2. Kontratazio-mahaiak:

2.1. Gizon eta emakumeen artean 60/40ko gutxieneko proportzioa bermatzen ahaleginduko dira eta 2020rako 50/50ekoa izaten ahaleginduko dira

2.2. Kontratazio mahaien aktak.

3. Kontratatutako harremanak eta eragiketak:

3.1. Udaleko hornitzaileekin egindako eragiketen zerrenda.

3.2. Esleipendun garrantzitsuenekin egindako eragiketen zerrenda, Transparencia Internacionalek gomendatutako adierazleak jasota.

4. Sinatutako mota guztietako hitzarmenak eta kudeaketa-aginduak.

5. Emandako diru-laguntzak eta laguntzak.

17. artikulua.- Gardentasuna hirigintzan eta herri-lanetan:

Gai horri dagokionez, Udalak honako adierazle edo item hauek argitaratuko ditu Gardentasunaren webgunean:

1. Plan orokorra, plan partzialak, araudia eta hirigintza-hitzarmenak.

1.1. Indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Nagusia (HAPN) eta hirigintza-arauak.

1.2. HAPN zehazten duten mapak eta planoak.

1.3. HAPNrako onetsitako aldaketak


1.4. Hirigintza-hitzarmenak.

1.5. Plan partzialak.

1.6. Hirigintza-kudeaketaren arloan indarrean dagoen araudia (aurretik aipatutakoaz gain).

2. Herri lanetako lizitazioak:

2.1. Prozedura irekiaren bidez lizitatutako obren proiektuak, baldintza agiriak eta lizitazio irizpideak.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

2.2. Prozedura irekiaren bidez lizitatutako obren proiektuen aldaketak. ¿? 2.3. Prozedura irekiaren bidez lizitatutako obren lizitazioetara aurkeztutako enpresen zerrenda.

2.4. Uneko obrei buruzko informazioa: helburuak, arduraduna, kontratista, aurrekontua, epea, eta abar.

2.5. Amaitu diren eta amaitzeko dauden obrei buruzko sei hilean behingo informazioa: txostenak, jakinarazpenak, prentsa-oharrak.

3. Hirigintzari eta herri-lanei buruzko adierazpenak:

3.1. Azpiegituretako inbertsioa biztanleko.

3.2. Hirigintzatik ondorioztatutako diru-sarreraren ehunekoa.

3.3. Hirigintzatik ondorioztatutako gastuen ehunekoa.

18. artikulua.- Gardentasuna ekonomia- eta aurrekontu-informazioan.

Gai horri dagokionez, Udalak honako adierazle edo item hauek argitaratuko ditu Gardentasunaren webgunean:

1. Aurrekontuak:

Udalaren aurrekontuak, haien partidak eta betearazpena jakinarazita. (Arlotan banatuta eta 5 urteko alderaketa).

Aurrekontuen laburpena. Alor bakoitzaren eta horietako bakoitzaren atal adierazgarriena zenbateko orokorra modu argian eta zehatzean bilduz eta azken 5 urteetako alderaketa. Era berean, azken 5 urteetako inbertsioen koadroa, udal-zorra eta azken urteko aurrekontu-exekuzioaren dokumentua ere argitaratuko da. Argi zehaztuko da arloen araberrako exekuzio maila eta inbertsioena.

2019tik aurrera, aurrekontuak genero-inpaktuaren ebaluazioa jasoko dute.

1.2. Udal erakundearen aurrekontuak.

1.3. Aurrekontu-aldaketak.

1.4. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuen betetze-maila.

1.5. Inbertsioen koadroa argitaratu eta x 5 urteko alderaketa

2. Aurrekontu-, finantza- eta zorpetze-adierazleak:


2.1. Superabita edo defizita biztanleko.

2.2. Zerga autonomia.

2.3. Zerga arloko diru-sarrerak biztanleko.

2.4. Gastuak biztanleko.

2.5. Inbertsioa biztanleko.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

2.6. Ordaintzeko batez besteko aldia.

2.7. Kobratzeko batez besteko aldia.

2.8. Udal zorraren zenbatekoa.

2.9. Udal zorrak urte batetik bestera izandako bilakaera.

2.10. Zorpetzea biztanleko.

3. Urteko kontuak eta fiskalizazioa.

3.1. Kontuen Batzorde Bereziari aurkeztu beharreko kontu orokorra.

3.2. Udaleko eta haren erakunde autonomoetako eta sozietate publikoetako kanpoko edo barneko organoei egindako ikuskapenei buruzko txostenak.

19. artikulua.- Gardentasuna ondare informazioan.

Gai horri dagokionez, Udalak honako adierazle edo item hauek argitaratuko ditu Gardentasunaren webgunean:

1. Higiezin propioen, alokatuen, okupatuen edo Udalari atxikitakoen (bulegoak, lokalak, etxebizitzak eta abar) zerrenda.

2. Udalaren ibilgailuak

3. Balio historiko, artistiko edo ekonomiko handia duten ondasun higigarriak.

4. Ondasun eta eskubideen inbentarioa.

20. artikulua.- Gardentasuna herritarrekiko harremanetan.

Gai horri dagokionez, Udalak honako adierazle edo item hauek argitaratuko ditu Gardentasunaren webgunean:

1. Herritarrentzako arretari buruzko informazioa:

1.1. Kultur eta kirol establezimenduetako ordutegiak eta prezioak.

1.2. Erabilgarri dauden online izapideak.

1.3. Udalaren web-mapa.

2. Herritarrekiko konpromisoak:


2.1. Gizon eta emakumeen artean 60/40ko gutxieneko proportzioa bermatzen ahaleginduko dira eta 2020rako 50/50ekoa izaten ahaleginduko dira

2.2. Parte-hartze Araudia argitaratzea.

2.3. Iradokizun eta erreklamazioen postontzia.

2.4. Zerbitzuen katalogoa edo gutuna, eta ezarritako konpromisoen betetze maila.

V. KAPITULUA. GOBERNU ONA.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

21. artikulua.- Jokabide-kodea.

1. Durangoko Udalaren Udalbatzak bere kide guztientzako Jokabide Kodea onetsiko du, baina norberak bere gain hartu beharko du hori errespetatzeko eta betetzeko konpromisoa.

2. Jokabide-kodea eta banakako atxikipenak Udalaren Gardentasunaren webgunean argitaratuko dira.

22. artikulua.- Gutxieneko edukia.

Udalbatza osatzen duten pertsonen honako printzipio hauek, gutxienez, betetzen direla bermatuko du jokabide-kodeak:

1. Legea eta gainerako antolamendu juridikoa errespetatzea.

2. Gai publikoen kudeaketako gardentasuna, eraginkortasun eta efikazia printzipioen arabera eta interes orokorra betetzeko asmoz.

3. Zerbitzu publikorako arduraldia, edozein interes-gatazka egotekotan jarduteari uko eginda.

4. Inpartzialtasunaren printzipioa errespetatzea, beste edozein interes partikularrekin zerikusirik ez duena.

5. Tratu berdintasuna, bereizkeriarik gabea eginkizunak gauzatzean.

6. Betebeharrak betetzeko orduan jarduketa arduratsua izatea eta zerbitzu publikoen kalitatea sustatzea.

7. Jokabide egokia eta herritarrekiko tratu arretatsua.

8. Ekintzengatik eta erabakien erantzule izatea.


II. TITULUA. HERRITARREN ESKUBIDEAK

KAPITULUA. HERRITARRENTZAKO LAGUNTZA AKTIBOA

23. artikulua.- Laguntza aktiborako eskubidea.

1. Aurreko tituluan ezarritakoaz gain, Udalak ahalik eta informazio zabalena eskainiko du bere jarduerari buruz, udal planekin zerikusia duten proiektu eta jarduerak kudeatzen dituzten erakunde eta elkarteen jarduerari buruz eta herritar guztiek herriko egunerokotasunean duten partaidetzari buruz.

2. Herritar guztiek dituzte, Udalarekiko harremanen alorrean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legeria orokorrak



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

ematen dizkien eskubideak. Hain zuzen ere, indarrean dauden xedapenek egiteko proposatutako proiektu, jarduera edo eskabideei ezarritako betekizun juridiko edo teknikoei buruzko informazio eta orientazioa eskuratzeko eskabideari dagokionez, honako eskubideak izango dituzte herritarrek:

a) Udalarekin posta elektronikoko bidez harremanetan jartzekoa, Herritarrei Informazioa eta Arreta emateko Bulegoaren bitartez edo webgunean identifikatutako arlo, atal edo bulegoaren bitartez, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera, egokitzen jotzen den gaia azalduta.

b) Bere eskaerari lotuta dagoen erantzun arrazoitua zentzuzko epean eskuratzekoa; epe hori, nolana ere, hamar egun baino gutxiagokoa izango da, galdera egin zenetik zenbatzen hasita. Herritarrei posta elektronikoz emandako erantzuna ez da loteslea izango, araudiak kontrakoa ezarri ezean. Hala ere, ezin izango da inolako jokaerarik zigortu eta ez da erantzukizunik sortuko, jokaera hori Udalak berak bide hori erabilita eman duen araudiaren zentzuzko interpretazioak babesten badu.

3. Herritarrei Informazioa eta Arreta emateko Bulegoa egongo da, herritarrei oro har harrera egiteko. Bertan, eskatutako gai guztiei buruzko informazioa emango du Udalak, bide posible guztiak erabilita (aurrez aurre, telefonoz, telematikoki, eta abar). Bulego horrek progresiboki bereganatuz joango den eta tramitazio laburtua izan dezaketen espediente eta gaiak kudeatuko ditu, eta, hala badagokio, dagokion bulegora bideratuko ditu herritarrek.

II. KAPITULUA. ENTZUNALDI PUBLIKOA IZATEKO ESKUBIDEA

24. artikulua.- Edukia.

1. Entzunaldi publikoaren bitartez herritarrek, elkarteek edo udal erakundeek jardueraren bat egiteko edo erabaki zehatzen bat hartzeko proposa diezaizkete udal administrazioari; halaber, arazoren bat azaldu edo Udalaren interes orokorreko gairen bat azal dezakete.

2. Alkateak edo zinegotzi-ordezkariek deituko du, edo bizilagunek hala eskatuta.


25. artikulua.- Herritarrek eskatuta egindako deialdia.

1. Udalak ofizioz egin ditzakeen deialdiei kalterik egin gabe, honako hauek ere entzunaldi publikoa deitzeko legitimazioa izango dute:

a) Udal erroldan inskribatutako pertsonen % 2, 16 urtetik gorakoak badira, dagokion sinadura-orriaren bitartez.

b) Herri Elkarten Udal Fitxategian inskribatutako herritarren elkarteak, taldeak edo erakundeak.

c) Kontseilu oro edo Durangoko Bizilagunen Elkarte oro.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

2. Posible da aurreko zenbakian ezarritako legitimazioa barruti edo auzo zehatz bati egokitzea, gaiak berari bakarrik eragiten badio. Horrelakoetan, legitimazioa aztertu beharreko gaiak eragindako lurralde-eremu zehatzari baino ez zaio egokituko.

3. Eskabidearekin batera, aztertuko diren gaiiei buruzko txosten edo memoria aurkeztuko da, eta Udalari egindako proposamena zein den ere bai.

4. Edozein herritar, elkarte edo erakundek, nahiz eta aurreko zenbakian ezarritako legitimazio-betekizunak ez izan, entzunaldia eskatu ahal izango du, politika- edo kudeaketa-erantzukizunak dituzten Udalbatzako kideek entzun dezaten.

26. artikulua.- Funtzionamendua.

Dokumentazioa jaso eta egiaztatu ondoren, alkateak edo berak eskuordetutako zinegotziak entzunaldi publikoaren deialdia egingo du, gehienez hilabeteko epean. Gutxienez astebete lehenago egingo da deialdia, eta entzunaldirako leku, egun eta ordua, gai-zerrenda eta erantsitako dokumentazioa zehaztuko dira, beharrezko izatekotan.

Saioari hasiera emateko, hizlariak landu beharreko gaiaren azalpena egingo du.

Politikarien esku hartzea eta posizionamendua (5 minutu)

Bertaratutako pertsonen esku hartzea.

Arduradun politikoaren eta udal taldeen erantzuna, hala baldin badagokio. (5 minutu)

Beste behin ere, gizon eta emakumeen artean 60/40ko gutxienerako proportzioa bermatzen ahaleginduko dira eta 2020rako 50/50ekoa izaten ahaleginduko dira.

III. KAPITULUA ESKATZEKO ESKUBIDEA


27. artikulua.- Titularrak.

Pertsona guztiek dute Udaleko gobernuari edo bere erakunde autonomoi, euren eskumeneko gaietan, eskaerak edo eskabideak egiteko eskubidea, baita udal jarduerari buruzko argibideak eskatzeko eskubidea ere. Muga bakarrak legeek ezarritakoak izango dira.

28. artikulua.- Eskubidea egikaritzeko modua.

Eskaera idatziz egingo da, eta bere egiazkotasuna egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bitarteko erabilita egin ahal izango da, telematikoki ere bai. Ez da ezberdintasunik egongo gai horrek eskatzaileari bakarrik eragiten badio ala interes kolektibo edo orokorreko gaia bada.

29. artikulua.- Eskubidea ez onartzeko arrazoiak.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Udalak, arrazoitutako ebazpen bitartez, ukatu ahal izango du eskabidea izapidetzeko onartzea, honako kasuren bat gertatzen bada:

- a) Eskareren helburua ez bada Udalaren eskumenekoa.
- b) Eskerak berariazko administrazio-izapidea badu ezarrita. Horrelakoetan, uko egiteko ebazpenak bidezko tramite zehatza eta aplikatu beharreko araudia zeintzuk diren zehaztuko du.
- c) Aurretiaz eduki bereko eskaerak aztertu badira. Horrelakoetan, uko egiteko ebazpenak aurreko eskaeren emaitza zehaztuko du.

30. artikulua.- Osteko izapidetzea.


1. Udalak proposamena edo kexa hartu duela adierazi beharko du, jaso eta hurrengo zazpi egunen barruan.
2. Udalak proposamena edo kexa onartezintzat jo ahalko du modu arrazoituan, hori aurkeztu eta hurrengo hamabost lanegunen barruan.
3. Udalak proposamenari edo kexari erantzun beharko dio hogeita hamar eguneko gehieneko epean, ez bada onartezintzat jotzen.
4. Ebazpenak hartutako neurriak edo hartzea aurreikusi diren jarduerak azaldu beharko ditu edo, bestela, egindako eskaera aintzat ez hartzeko arrazoiak zeintzuk diren.
5. Kapitulu honetan aurreikusi ez den guztirako, eskatzeko eskubidea arautzen duen araudi nagusian xedatutakoari jarraituko zaio.
6. Udalak udalaren webguneko gardentasun-atarian argitaratuko ditu egindako eskaerak eta horien izapidetze-egoera.

IV. KAPITULUA HERRI-EKIMENERAKO ESKUBIDEA

31. artikulua.- Edukia.

Herri-ekimenaren bitartez, herritarrek udal eskumeneko eta interes publikoko jardueraren bat egiteko proposa diezaizkete Udalari. Besteak beste, honako ekimen hauek egin daitezke:

- a) Bere eskumenen eremupeko araudi proiektuak, zerga-ordenantzak eta prezio publikoen ordenantzak salbu.
- b) Erabaki-proposamenak.
- c) Interes publikoko gaietan jarduteko proposamenak, finantziario-proposamena azalduta, hala badagokio.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

d) Herritarrei galdetzeko proposamena, Titulu honen VII. kapituluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

32. artikulua.- Legitimazioa.

Udal hauteskundeetan botoa emateko eskubidea duten Durangoko herritarrek gauzatu ahalko dute ekimena. Udalerrian erroldatutako 16 urtetik gorakoen % 10ek, gutxienez, sinatu beharko dituzte ekimen horiek. Ekimenak herri-kontsultarako eskaera badakar berekin, udalerrian erroldatutako 18 urtetik gorakoen % 10ek, gutxienez, sinatu beharko dute. Gizon eta emakumeen artean 60/40ko gutxieneko proportzioa bermatzen ahaleginduko dira eta 2020rako 50/50ekoa izaten ahaleginduko dira (Izena ematen dutenen edo aurkezten direnen artean)

33. artikulua. Izapidetzea.

1. Eskaera idatziz egingo da, bertan eskatzailea eta edukia jasota. Ordezkarri bat izendatuko dute, eta harekin egingo dira izapideak. Argi azaldu beharko da zein den eskatzen den jarduera, zein bitarteko ekonomiko edo giza baliabide jotzen diren beharrezkotzat eta, hala badagokio, zeintzuk diren eskatzaileak ematea aurreikusi dituenak. Herri-galdeketa eskaerak berekin dakartzaten ekimenak, Euskadiko Tokiko Erakundeen 2/2016 Legearen 80.4 artikulua bildutakoaren arabera, populazioa 5.000 biztanletik gorakoa den udalerrietan erroldatutako bizilagunen % 10ek behintzat izenpetuta baldin badaude, edo % 20k, populazio kopuru berdina edo baxuagoa duten udalerrien kasuan. Kasu horietan, udalak, sinadurak egiaztatu ostean, galdeketa deitu beharko du eta izapidetze-prozedura zabalduko du horren terminoak zehazteko. Tokiko herri-kontsulta egiteko proposamena egin ahal izango dute; hori, toki-araubidearen oinarritzko legeetan eta araudi honetan ezarritako prozedura eta betekizunei jarraituta izapidetuko da. (80.4 artikulua ordezkatuta)

2. Eskabideak aurreko artikuluan ezarritako legitimazio-baldintzak betetzen baditu, honela jardungo da:


a) Izapidetzeko onartu bezain laster, idazkia udal taldeetako bozeramaileei helaraziko zaie.

b) Dagokion arloak horri buruzko txostena egin beharko du.

c) Nolanahi ere, Udaleko Idazkaritzak eskaeraren legezkotasun- txostena egin beharko du. Ekimenak eduki ekonomikoko eskubide eta betebeharrei eragiten badie, Kontu-hartzaitzak egingo du txostena.

d) Gai horretan eskumena duen informazio batzordeak ekimenari buruzko irizpena emango du, premiazkotasuna tarteko denean salbu: kasu horretan Udalbatzari dagokio irizpena ematea.

e) Ekimenak osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatu beharko dira, gaiari buruzko eskumena duen organoak ebatzi ahal izango baditu ere.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

3. Eskatzaileek Araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte edo eduki bereko gaiak ebatzi badira, eskabidea ez onartzeko aukera egongo da, arrazoitutako ebazpenaren bitartez, betiere.
4. Ekimena aurkeztu zenetik 3 hilabeteko epean ez balitzaio osoko bilkurari aurkeztuko, eskabidea gaitzetsi egin dela jo ahal izango dute eskatzaileek, Administrazio Prozedura Erkidearen araudian aurreikusitako ondorioetarako.
5. Udalak herri-ekimena onesten badu, jendaurrean jakinaraziko du nola eta zein datatan bideratuko den, eta, horretarako, dagokion ekonomia partida erabiliko du.

V. KAPITULUA. OSOKO BILKURARA AKTIBOKI JOATEKO ESKUBIDEA.

34. artikulua.- Osoko bilkurari mozioak aurkezteko eskubidea.

1. Herritarren interes kolektiboak ordezkatzan dituzten udal erakunde, elkarte edo herritar guztiek eta udal erakundean ordezkariak duten zein ez duten alderdi politiko guztiek dute euren intereseko UDAL gaiei buruzko mozioak aurkezteko eskubidea.

2. Mozioak idatziz aurkeztuko dira Udalaren Erregistro Nagusian, eta azalpena edo justifikazioa eta hartu beharreko erabaki-proposamena jasoko dituzte. Talde politikoetako bozeramaile guztiei bidaliko zaie mozio horren kopia.


3. Alkatetzak mozioen izapidetzea arrazoitutako moduan bazter dezake, nori aurkez ziezaiokeen jakinaraziz.

4. 4. Mozioa baztertu ez bada, Alkatetzak erabakiko du gai horretan eskumena duen batzordeko idazkariari helaraziko zaion, bidezko irizpena eman dezan, ala zuzenean osoko bilkurari helaraziko zaion, dagokion TXOSTENAREN ostean.

5. Mozioa izapidetu ostean, osoko bilkuraren gai-zerrendan sartuko da, dagokion informazio batzordearen irizpenarekin batera, hala badagokio. Mozioa gai-zerrendan sartu bada, entzunaldia emango zaio berau proposatu duenari, eta horrek Alkatetzari eskatu ondoren. Hala, bada, ordezkari bakar batek ahoz azaldu ahal izango du mozioaren eduki eta egokitasunari buruz duen iritzia, Alkatetzak adierazitako denboran, eta gai-zerrendan azaldutako proposamenaren eztabaida eta bozketa egin aurretik. Ondoren egingo diren eztabaida eta bozketan Udalbatzako kideek baino ezin izango dute parte hartu eta, beraz, bertaratutako ikus-entzuleek eta mozioa proposatu duen pertsonak ezin izango dute parte hartu, osoko bilkuraren funtzionamendurako arau orokorreari jarraituta.

35. artikulua.- Eskaerak eta galderak egiteko eskubidea.

1. Herritarrek, elkarteek eta udal erakundeek, era berean, eskaera eta galderak egin ahal izango dizkiete Udalaren gobernu-organoei. Galdera eta erantzun horiek gainerako udal-taldeei bidali beharko zitzaizkien.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

2. Auzo-ekimeneko eskaera eta galderak Udalbatzaren Erregistro Nagusian aurkeztutako idazki bitartez aurkeztuko dira beti.

3. Ez dira onartuko eskaera edo galdera pertsonalak, errespetugabeak edo talde politiko zehatzei egindakoak.

4. Auzo-ekimenaren ondoriozko galderei hartzaileak erantzungo die, gutxienez 5 egun naturaleko aurrerapenarekin. Hartzailea alkatea izan ez arren, alkateak berak ere erantzun ahal izango die.

35 bis artikulua. – Herritarrek informazio-batzordeetan duen parte-hartzea.

Informazio-batzordeak publikoak izango dira; hori dela eta, web orrian eta iragarki-oholean argitaratuko dira, 2 eguneko aurrerapenarekin, zer egunetan egingo diren eta dagokien gai-zerrenda. Era berean, batzordeetako aktak ere argitaratuko dira.

Udaleko pertsona edo talde bati zuzenean eragingo dioten gaiak landuko diren informazio-batzordeen kasuan, pertsona horiek batzordera gonbidatuko dira eta gonbidapena onartu ondoren, aipatutako puntuaren elkarrizketa edota botazioa gertatu aurretik esku hartzeko eskubidea izango dute.

VI. KAPITULUA UDAL BALIABIDEAK ESKURATZEKO ESKUBIDEA.

36. artikulua.- Edukia.

1. Herritar, elkarte edo udal erakunde guztiek dute erabilera orokorreko udal baliabideak baliatzeko eskubidea, duten xedearen arabera. Eskubide honen muga bakarrak dira dauden espazio- eta denbora- mugak eta udal ordenantzetan ezarritakoak.


2. Zerbitzu publiko bati atxikitako udal instalazioak barne-araubideko araudietan, udal araudietan edo dagokion erakunde autonomoaren erabilera kudeatzen duten araudietan xedatutakoaren arabera erabiliko dira.

3. Udalak herritar guztiek informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea sustatuko du eta, horretarako, teknologia horiek erabiltzeko puntu publikoak eskainiko ditu ekipamendu-sarearen eta udal bulegoen bitartez.

VII. KAPITULUA. HERRI GALDEKETARAKO ESKUBIDEA.

37. artikulua.- Edukia.

1. Udalak, Alkatezaren bitartez, eta Euskadiko Tokiko Erakundearen Legearen 2/2016 Legearen 80, 81 eta 82 artikuluetan bildutakoaren arabera, herri-



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

galdeketak, sektorekako galdeketak eta herritarrenak egin ahal izango ditu aipatutako artikuluetako eskakizunetan eta aurreikuspenetan oinarrituta.

2. Aurrekoa alde batera utzita, eta interes publikoak hala eskatzen badu, Udalak herritarren iritzia bildu ahal izango du inkesta zein iritzi-azterketen bitartez, gaiak jendaurrean azalduta, teknologia berriak erabilita edo herritarren iritzia jakiteko beste edozein bide erabilita. Galdeketa horiek, orokorrak direnean, hau da, sexu zehatz bati lotuta ez daudenean, gizon eta emakumeen arteko 50/50eko proportzioa bermatuko dute.

Tokiko erakundeen legearen 80-81-82 artikuluekin ordezkatu (lile)

VIII. KAPITULUA. UDAL AURREKONTUAK PRESTATZEN LAGUNTZEKO ESKUBIDEA

38.-artikulua.- Xedea.

1. Herritarren interes kolektiboak ordezkatzeko dituzten udal erakunde, elkarte edo herritar guztiek eta Udalean ordezkariak duten zein ez duten alderdi politiko guztiek dute udal aurrekontuak prestatzen laguntzeko eskubidea.

2. Eskubide hori bermatzeko asmoz, Udalak araudi bat ezarriko du, prozesuan parte hartzeko moduak, prozesuaren jarraipena eta kontrola, erabaki-organoak eta eremuak eta gauzatze edo instituzionalizazio maila zehazten dituena.

3. Halaber, goian aipatutako eskubidea erabat bete dadin, beharrezko baliabide teknikoak eta ekonomikoak bermatuko dira.

4. Beste behin ere, gizon eta emakumeen artean 60/40ko gutxieneko proportzioa bermatzen ahaleginduko dira eta 2020rako 50/50ekoa izaten ahaleginduko dira


III. TITULUA. ELKARTEGINTZA SUSTATZEA. I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

39. artikulua.- Aintzatespen orokorra

1. Durangoko herritarrei aintzatetsitako eskubideak eta ekintzak herritarren erakundeek ere gauzatu ahalko dituzte beren ordezkarien bidez.

2. Udalak elkartegintzak gora egitea bultzatu eta lagunduko du. Horretarako, hainbat baliabide tekniko eta ekonomiko erabiliko ditu, adibidez: diru- laguntzak, hitzarmenak eta laguntza profesionala.

40. artikulua.- Xedea.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Titulu honen xedea da Udalak herritarren erakundeekin izango dituen harremanen araubide juridikoa arautzea, baita horien eskubideak, Herritarren Elkarte Udal ERREGISTROA eta horren ondorioak arautzea ere.

41. artikulua.- Definizioak.

1. Araudi honen ondorioetarako, herritarren erakundeak dira legez osatutako elkarte edo talde guztiak, indarreko legeriaren arabera osatuak, herritarren interes orokor edo sektorialak defendatzea helburu dutenak, interes hori dena delakoa izanda ere: ekonomikoa, soziala, kulturala, zientifikoa, hezitzailea, aisiakoa, kirolekoa, gazteriarekin lotutakoa edo antzekorik.

2. Halaber, talde egonkorak ere herritarren erakunde bezala inskribatu ahal izango dira. Talde egonkortzat hartuko dira baliabide ekonomiko edota pertsonalak elkarrekin jartzeko konpromisoa dutenak, irabazi-asmorik gabe, interes orokorreko helbururen bat lortzeko, adibidez: lagunarteak, koadrilak, eta abar, nahiz eta Eusko Jaurlaritzako Elkarte Erregistroan inskribatuta egon ez.

42.-artikulua.- Aplikazio-eremua.

Araudi honen aplikazio-eremuan daude aurreko artikuluan definitutako elkarteak edo taldeak, honako hauek izan ezik:

a) Merkataritza-zuzenbidearen mendeko erakundeak eta, oro har, helburu nagusia etekin ekonomikoak izatea dutenak, gero etekin horiek bazkideen artean banatzeko. b) Alderdi politikoak edo erakunde politikoak, enpresa-elkarteak eta sindikatu-erakundeak.

c) Aurreko letran aipatutako erakundeekin lotura duten egoitza sozialak edo lokalak dituzten elkarteak edo erakundeak.

d) Erljio-elkarteak edo -erakundeak.

e) Elkargo Profesionalak.


f) Edozein administrazio publikoren mendeko erakunde autonomoak edo merkataritza-sozietateak.

43.-artikulua.- Printzipio nagusiak.

1. Elkarteek eta herritarren erakundeek askatasun osoz eta beraien borondatez emango dute izena Elkarte Udal Fitxategian. Ezin izango da inolako elkarte, talde edo erakunderik derrigortu erregistro horretan izena ematera, ezta bertan egotera ere.

2. Elkarte edo talde bat kide izatea ez da, inondik inora, Udalak baztertzeko edo aldeko edo mesedeko tratua emateko arrazoia izango.

44. artikulua.- Araubide juridikoa.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Honako hauek arautzen dituzte elkarteak eta herritarren erakundeak:

- a) Izaeraren arabera aplikatu dakiekeen legeria orokorrak, barne- estatutuek eta gobernu-organoek balioz onartutako erabakiek arautzen dituzte osaketa, izena ematea eta barne araudia.
- b) Hirugarrengokiko harremanei dagokienez, aplikagarria zaien araudi zibilaren bidez.
- c) Udalarekiko harremanei dagokienez, Araudi honetan eta gainerako udal- araudietan dauden xedapenen bidez

II. KAPITULUA. HERRITARREN ERAKUNDEEN ESKUBIDEAK

45. artikulua.- Eskubideak.

1. Elkarteen Udala Erregistroan izena emandako herritarren elkarteek eskubide hauek dituzte:

- a) Osoko bilkurari mozioak, galderak eta eskaerak aurkezteko eskubidea.
- b) Osoko bilkuraren bileretako gai-zerrenda jasotzeko eskubidea, hala eskatuz gero, eta ahalik eta arinen.
- c) Informazio batzordeen edo batzorde teknikoen bileretan horiek ukitzen dituzten gaietan hitz egiteko eskubidea, Araudi honetan ezarritako moduan.
- d) Eskubideak egiteko eskubidea, eskatzeko eskubidea erabilita.
- e) Entzunaldi publikoa izateko eskubidea eta kudeaketa-erantzukizuna duten Udalbatzako kideek zuzenean eta banan-banan entzuna izateko eskubidea.
- f) Erabilera orokorreko udal baliabideak baliatzeko eskubidea, duten xedearen arabera.
- g) Herri-ekimenerako eskubidea.
- h) Araudi honetan berariaz ezarriko diren beste eskubide guztiak, herritarren parte-hartzea errazteko direnak.


2. Gainera, elkarte horiek honako eskubide hauek izango dituzte, Araudi honetan ezarritako terminoetan:

- a) Diru-laguntzak jasotzekoa.

Udalaren lokalak eta komunikabideak erabiltzea.

46. artikulua.- Diru-laguntzak.

1. Udalaren baliabideek ahal duten neurrian emango dira diru-laguntzak, diru-laguntzak emateko indarreko ordenantza orokorrean xedatutakoaren arabera, Oinarri Orokorrean xedatutakoaren arabera eta, dagokionean, Udalbatzak



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

onetsitako berezitasunen arabera, baita Aurrekontua Egikaritzeko Udal Arauan ezarritako irizpideen arabera ere.

2. Udalak diru-laguntza horiek emateko urteko deialdia egingo du. Deialdi horrek diru-laguntzak emateko eta haien zenbatekoa zehazteko irizpideak adierazi beharko ditu.

3. Udal aurrekontuetatik diru-laguntzak jaso dituztenek nahitaez zuritu beharko dute jasotako funtsen erabilera, diru-laguntza bakoitzeko araudian ageri den epean.

4. Diru-laguntza jaso izanak ez die diruz lagundutakoei inolako eskubide subjektiborik emango, etorkizunean beste diru-laguntza batzuk jasotzeari begira.

5. Ezingo dira diruz lagundu Udalaren iritziz funtzionamendu demokratikoa, elkartutako pertsonen aldian behingo hauteskundeak egitea edo gizarte-helburua betetzea bermatzen ez duten erakundeak.

6. Durangoko Udalak, bere eskumenen eremuan, lankidetzaz hitzarmenak ezarri ahalko ditu interes sozialeko programetarako, Herritarren Elkartearen Udal Erregistroan inskribatutako taldeekin.

7. Arlo horretan, Durangoko Udalaren Urteko Diru-laguntzen Oinarri Arautzaileetan, Durangoko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

8. Deialdi guztietan emakumeen aldeko diskriminazio positiboko neurriak txertatzea baloratuko. Elkarteek genero-irizpideak txertatzea bermatuko duten berdintasun-klausulak txertatuko dira.

9. Gobernu-organoetan eta kudeaketa-organoetan gizon eta emakumeen osaera parekidea islatzen dutenei puntuazio altuagoa emango zaie.


47. artikulua.- Udalaren lokalak eta komunikabideak erabiltzea.

1. Udalaren lokalak erabiltzeko, irabazi-asmorik gabeko elkarteei udal lokalak prekarioan lagatzeko oinarriak arautzeko indarreko ordenantza arautzailean xedatutakoa hartuko da kontuan. Dena dela, erabiltzaileek modu arduratsuan erabiliko dute lokala, eta elkarteak izango da instalazioetan gertatutako narriaduren erantzule.

2. Udal bitarteko publikoak erabiltzeko, horretarako ezarrita dauden arauak jarraituko zaie, eta, horrelakorik ez balego, Udalari idatziz eskatu beharko zaio, alde aurretik, dagokien zerbitzuek ezarritako epean.

3. Udalak abala edo bermea ezarri ahal izango die erabiltzaileei, udal bitartekoak egoki erabiliko dituztela ziurtatzeko.

III. KAPITULUA. HERRITARREN ERAKUNDEEN UDAL EREGISTROA



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

48. artikulua.- Erregistroa sortzea.

1. Herritarren Elkarteen Udal Fitxategia sortu da, Herritarrei Arreta Emateko Arloak eramango duena.

2. Udal Fitxategiak ez du zerikusirik legez ezarritako erregistroekin, alegia, izaera orokorreko elkarteak, erakundeak eta taldeak eratzeko eta aitortzeko erregistroekin.

3. Helburu bi ditu Herritarren Elkarteen Udal Fitxategiak:

a) Alde batetik, inskribatutako erakundeak aintzat hartu eta Araudi honek nahiz indarrean dagoen legediak ematen dizkien eskubideez baliatzeko duten aukera bermatzea udal eremuan.

b) Eta bestetik, Udalak jakin ahal izatea zenbat erakunde dauden, zein helburu, ordezkagaitasun, interes eta onura publiko duten, elkartegintza sustatzeko udal politika zuzena egin ahal izateko.

(Ez berriz eskatu aldatu ez diren edo lehen aldiz aurkeztu EZ diren dokumentuak)

49. artikulua.- Inskribatzearen ondorioak.

1. Araudi honetan edo Udal Araudi Organikoan herritarren elkarteei aitortutako eskubideak Herritarren Elkarteen Udal Fitxategian inskribatuta daudenek bakarrik eskatu ahal izango dituzte.

2. Udal administrazioak, gainera, udalaz gaindiko elkarte orori aitortu ahal izango dio, bere iritziz interes publiko nabarmena baldin badu, Araudi honetan inskribatutako elkarteei aitortutako eskubideetako edozein, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan xedatutakoaren arabera. Modu berezian baloratuko dira gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde lan egiten dutela frogatzen dutenak. Baremazio-irizpideek berdintasun-adierazleak txertatuko dituzte eta horiek modu berezian baloratuko dute emakumeen eta gizonen berdintasunaren bultzada.


50. artikulua.- Inskribatzeko eskubidearen titularrak.

Elkarteen Udal Erregistroan inskribatu ahal izango dute 41-1 artikuluan definitutakoek eta 42. artikuluan kanpora utzita ez daudenek, 41-1 /42 artikuluaaren arabera.

51. artikulua- Izena emateko prozedura.

Herritarren Elkarteen Udal Fitxategian inskribatzeko eskabideak Udal Erregistroan aurkeztuko dira. Eskabidearekin batera, agiri hauek ere aurkeztuko dira, originalak edo Idazkaritza Nagusiak erkatutako kopiak (Araudi hau indarrean jarri denean inskribatutakoak salbu):

a) Erakundearen estatutuak edo indarrean dituzten funtzionamendu arauak. Beste erregistro publiko batzuetan inskribatuta ez dauden taldeen kasuan, kide guztiek



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

sinatutako adierazpen arduratsua, honakoak zehaztuz: erakundearen sorrera, bere helburuak, gobernu- organoak eta taldea ordezkatzeko duen pertsona fisiko arduraduna, haren datu pertsonalekin batera.

b) Inskribatuta egotekotan, dagokion erregistro publikoan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri edo diligentzia, Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan edo antzekoren batean duen inskripzio-zenbakia zehazten duena.

c) Zuzendaritza karguak dituzten pertsona fisikoak, euren helbideak eta harremanetarako telefono-zenbakiak egiaztatzeko akta edo ziurtagiria. Inskribatu gabe dauden taldeen kasuan, arduradunaren datu pertsonalak eta harremanetarako telefono-zenbakia.

d) Erakundearen helbidea eta, hala badagokio, egoitza soziala(k).

e) Inskribatutako erakundearen IFZ. Inskribatu gabeko taldeen kasuan, arduradunaren IFZ.

f) Jardueren programa.

g) Eskatera egin den unean elkartutako pertsona kopuruaren ziurtagiria.

h) Jardueraren lurralde-arloa.

i) Erakundearen urteko aurrekontua.

52. artikulua.- Epea.

Agiriak zuzen egonez gero, izena emateko eskabidea egin zenetik hamabost eguneko epean jakinaraziko dio Udalak erakunde interesdunari bere inskripzio-zenbakia. Une horretatik aurrera, alta emanda dagoela ulertuko da, ondorio guztietarako.

53. artikulua.- Aldaketak.


1. Inskribatutako elkarteek datuak aldatuz gero, Erregistroari jakinarazi beharko diote, aldatu eta hilabeteko epean. Aurrekontua eta urteko jardueren programa urtarrilean jakinaraziko dira; halaber, kide kopuruari buruz eguneratutako egiaztatzea ere emango da.

2. Betebehar horiek behin eta berriro bete gabe geratzen badira eta Udal Administrazioak horri buruz egindako eskariei kasurik egiten ez bazaie, Alkatezak Fitxategian baja emateko ebazpena eman dezake.

3. Baja izan daiteke:

a) Borondatezkoa, elkarteak eskatu badu. Bertako legezko ordezkariak egin beharko du.

b) Administrazioak ofizioz izapidetutakoa. Nolanahi ere, erakundea desegin bada edo erakundeak Udalarekin zituen betebeharrak bete ez badira gertatuko da hori, aurreko zenbakian xedatutakoaren arabera.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

54. artikulua.- Publikotasuna.

1. Herritarren Elkarteek Udal Fitxategia publikoa da. Pertsona edo erakunde publiko edo pribatu orok du Herritarren Elkarteek Udal Fitxategia kontsultatzeko eskubidea, legeak babestutako datu pertsonalak izan ezik.

2. Udalaren webgunean, inskribatutako erakundeek eta horien datuen zerrenda zehatza azalduko da, Legeak babestutako datuak izan ezik.

3. Fitxategia Herritarrei Arreta Zerbitzuan kontsultatu ahal izango da, eskatzaileak aukeratutako bitarteko hauetakoren baten bidez, eskatzen duenak hautatuta:

a) Dagozkien idazpenen kopia arrunten bidez.

b) Programa informatikoa erakutsita eta, hala badagokio, bertan dagoen informazioa inprimatuta.

c) Edukiaren ziurtagiria igorrita, dagozkien tasak aurrez ordaindu ondoren.

d) Idazpenei buruzko agiriak erkatuta

55. artikulua.- Fitxategia eramateko modua.

Herritarren Elkarteek Udal Fitxategia euskarri informatikoan kudeatuko da. Hala ere, euskarri fisikoan dokumentatuko da, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean indarrean dauden idazpen guztiak azalduta. Horiek urtero baliozkotuko dira, eskumena duen funtzionarioak egindako diligentzia bidez, eta liburu bakoitzaren hasieran orri-kopurua, idazpenak zer eperi dagozkion eta idazpenen hasierako eta amaierako zenbakiak adieraziko dira.


V. KAPITULUA. NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO KOLEKTIBOAK, PLATAFORMAK ETA HERRITARREN KOORDINAKUNDEAK

56.-. artikulua.- Antolaketa sozialeko modu berriak aintzatestea.

1. Durangoko Udalak badaki antolaketa sozialeko modu berriek laguntza garrantzitsua ematen dutela, Herritarren Elkarteek Udal Erregistroan inskribatu gabeko herritarren plataformen eta kolektiboen bidez (plataformak, lagunarteak, koadrilak, gazteen lonjak, txoko gastronomikoak, sareak, koordinatzaileak...).

Horretarako, Herritarren Parte-hartze Arloan horiekin komunikazio eta lankidetzaren izateko beharrezko baliabideak prestatuko dira, baina kolektiboek hala eskatu beharko dute beren-beregi, gauzatu dadin.

2. Informazio, komunikazio eta jardueren hedapen-ondorioetarako, behar bezala erregistratutako elkarteek izaera bertsua izango dute. Horrela adierazi beharko diote Udalari: Udalbatzarekin harremanetan egoteko ordezkariak hautatu beharko dute, eta Udalari horren berri eman, herritarrei arreta emateko bulegoaren bidez.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

VI. KAPITULUA. Elkartegintzarako laguntza

57. artikulua.- Laguntza- eta aholkularitza-zerbitzuak.

Udalak elkartegintzak gora egitea bultzatu eta lagunduko du. Horretarako, hainbat baliabide tekniko eta ekonomiko erabiliko ditu, adibidez, diru-laguntzak, hitzarmenak eta laguntza profesionala, aurrekontu-baliabideen mugen barruan.

58. artikulua.- Topaguneak.


Durangoko Udala elkartegintzarako eta herritarren kolektiboetarako topaguneak egon daitezela bermatzen saiatuko da, betiere, Udal Eraikin, Lokal eta Instalazioen erabilera arautzen duen Ordenantzaren arabera.

IV. TITULUA. PARTAIDETZA ORGANOAK. I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

59. artikulua.- Definizioa.

1. Udalbatzaren informazio, kontsulta, lankidetzak, deliberamendu eta aholkularitzako organoak dira, aurrekontu parte-hartzaileak prestatzeko funtsezko tresnak dira, eta proposamenak eta iradokizunak egiteko gaitasuna dute. Gizarte-eragileek, udal taldeek eta erakundeek osatzen dituzte eta, horien bitartez, gauzatu egiten da auzo-taldeak interes publiko lokaletako gaien kudeaketan parte hartu eta horietara hurbiltzea:

- a) Euren gai-eremuko ekimen, iradokizun eta proposamenak aurkeztea, dagozkien arlo, atal eta udal erakundeek azter ditzaten.
- b) Lankidetzak eta aholkularitza ematea euren jarduera-eremuko gaiarekin zerikusia duten azterlan, programa eta proiektuak aurkezterakoan.
- c) Udal informazioa jaso eta zerikusia duten herritarren erakundeei jakinarazi eta hedatzea.
- d) Ukituak diren edo interesa duten pertsonen eta erakundeek udal jarduketako arlo bakoitzaren kudeaketan zuzenean parte hartzea sustatzea, eta ondorio horretarako udal jardueren beharrezko informazio, suspergarri eta jarraipen mekanismoak ezartzea.
- e) Kontseiluaren xede den eremuan diharduten erakundeen (publikoak edo pribatuak) artean elkartegintza, lankidetzak eta koordinazioa sustatu eta bultzatzea.
- f) Udalari aholkularitza ematea horrek Kontseiluaren jarduketa eremuan egiten dituen jarduketei buruz, Udalak aurkezten dituen gaiak eztabaidatu eta baloratuta,



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

bereziki, urteko programen informazioa, jarraipena eta ebaluazioa, eta proposamenak prestatuta.

g) Sektoreari lotutako azterlan, txosten eta jarduerak sustatzea.

h) Udal politika eta jarduera integralen aplikazioa sustatzea, pertsonen eskubideak aldezte aldera.

2. Araudi honetan aurreikusitakoez gain, beste kontseilu batzuk ere egon daitezke, betiere Udalbatzak, gehiengo osoaren aldeko botoaz, hala erabakitzen badu.

3. Arintasunaren eta operatibitatearen printzipioek zuzenduko dute kontseiluen funtzionamendua.

60. artikulua.- Osaera.

Eremu bakoitzeko kontseiluen behin betiko osaera haren Funtzionamendurako Barne Araudian ezarriko da, eta dagokion eremuaren berezitasunak hartu beharko ditu kontuan, berdintasunaren arloan indarrean dagoen legedian ezarritako emakumeen eta gizonen arteko proportzioa bermatuta. Beste behin ere, gizon eta emakumeen artean 60/40ko gutxieneko proportzioa bermatzen ahaleginduko dira eta 2020rako 50/50ekoa izaten ahaleginduko dira

61. artikulua.- Osatzea eta zerrendatzea.

1. Herritarren parte-hartzea, beste batzuen artean, Partaidetzako Eremukako Kontseiluen bidez antolatu ahal izango da, eta horien artean, hauek topa daitezke:

1.- Iraunkortasun Kontseilua edo Foroa.

2.- Berdintasun Kontseilua.

3.- Udal Planeamenduko Aholku Batzordea.


4.- Euskararen Kontseilua.

2. Udalbatzak udal arloei eskatu ahalko die egokitzat jotzen dituen kontseiluak sortzeko, baita horiek desagiteko edo bateratzeko ere, horien bilakaeraren, beharizan sozialen eta Durangoko Udalak duen administrazio-egituraketaren arabera.

3. Erakunde sozialek eta herritarrek ere Udalari eskatu ahalko diote horrelako kontseiluak sortzeko, eskaerarako edo herri-ekimenerako eskubidea gauzatuz, araudi honetan ezarri bezala.

62. artikulua.- Kontseiluen txostenei jarraipena egitea eta horiek bideratzea.

1. Herritarren parte-hartze alorrean eskumena duen arloak Herriko Kontseilutik eta eremukako kontseiluetatik etorritako informazio guztia bideratuko du, eta parte-hartze organoen proposamenen jarraipena egingo du. Halaber, kontseiluen bileren emaitzaren berri emango da hizpide den arloaren arabera eskuduna den Informazio Batzordearen lehenengo bileran.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

2. Arlo horrek Parte-hartze Memoria egingo du urtero, Udalaren kudeaketa-organoei eta Udal taldeetako bozeramaileei helaraziko zaiena.

63. artikulua. Udal Foro Soziala

Tokiko agenda 21 kudeatzen duen batzordeak, urtean behin gutxienez, udal foro soziala deituko du agendaren ekintza-planean, berdintasun-planean, euskara-planean eta hala ezartzen duen udal-izaerako beste edozein plan edo programatan ezarritako ekintzen betetze mailaren balantzea egiteko. Era berean, foro horretan, araudiaren betetze maila eta bete ahal izateko urtean zehar egindako jarduerak kalkulatu dira. Halaber, foro sozial honetan, udal arloan sor daitekeen eta herritarren iritzira eta partaidetzara eramango den gai puntual oro ere barne hartuko da.

Bertan landuko diren puntuak edozein izanda ere, udal foro sozial honek elkarrizketa eta herritarren parte-hartzea eragingo du puntu bakoitzean eta herritarrek egin beharreko eskaeren atal bat txertatuko du.

64. artikulua. Partaidetza komunitarioko prozesuak auzoetan/barrutietan.

Partaidetza komunitarioko prozesuak ezarriko dira udaleko auzo desberdinetan, baita topagunea eta batera egindako lana ere Udalaren eta auzoko bizilagunen artean, taldearen ongizatearen lorpenean partaidetza sustatzeko helburuarekin. Hori guztia Gobernu taldeak edo udalbatzako zinegotzien herenek proposatuta. Partaidetza-prozesu horiek dagokion batzordeak kudeatu eta koordinatuko ditu eta Tokiko Agenda 21 izango da leku naturala.

65. artikulua. Elkarrizketa-foroak.


Tokiko agenda 21 kudeatuko duen batzordeak gai horiei buruzko gogoetako eta proposameneko foro zehatzak egitea sustatuko du, udal kompetenziakoak, izaera eta ezaugarri zehatzak direla eta, posible egingo dutenak.

Tailer horiek talde politikoetako ordezkariak, arloko udal langile teknikoak, herritarren erakundeen ordezkariak eta bizilagunak (oro har) osatzen dituzte. Talde horietan, gizon eta emakumeen artean 60/40ko gutxieneko proportzioa bermatzen ahaleginduko dira eta 2020rako 50/50ekoa izaten ahaleginduko dira

Foro bakoitzerako ondorioen txosten bat egin beharko da. Txosten hori Alkatetzari, udal talde politikoei eta gainerako pertsona parte-hartzaileei helaraziko zaie. Ondorioak osoko bilkurara eramango dira eta udal taldeei eskatuko zaie ondorioetan oinarritutako ebazpen-proposamenak egiteko. Horiei gero bozketa egingo zaie.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.



DURANGO

..... Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Lehen Xedapen Osagarria:

Araudia indarrean sartu zenetik sei hilabeteko epean, Udalbatzak araudi espezifikoa onartu beharko du araudi honetako 38.2 artikuluan bildutako aurrekontuetan herritarren partaidetza arautzeko.

Bigarren Xedapen Osagarria:

Legealdi bakoitzean bi aldiz, txandakako irailtan izan daitezten ahaleginduz, dagokion batzordeak eta tokiko agenda 21en baitan, partaidetza-plana onartuko du. Bertan, herritarren partaidetzari dagokionez aldiko une garrantzitsuenak bilduko dira, gauzatzeko arloa edo arlo nagusiak nabarmenduz. Urtean behin, ahal dela uztailean, tokiko agenda 21en baitan, batzordearen bi urtez behingo planaren betetze mailaren balorazioa egingo da.

Azken Xedapena:

Araudi honetan ezarritakoa betetzeko, udalak horretarako beharrezko baliabide materialak eta pertsonalak izango ditu. Pertsona batek lan egin behar du Durangoko udalean ematen den betetze mailaren ondorioz dinamika parte-hartzaile guztien dinamizazioan, jarraipenean eta ebaluzioan.

{0>

Xedapena partida ekonomikoaren disponibilitatearen eta indarrean dagoen legediaren betetze mailaren arabera izango.